

ARRISKU PSIKOSOZIALAK EUSKADIKO EKINTZA SOZIALEKO HIRUGARREN SEKTOREAN

Zer lortu nahi dugu ikerketarekin?

Egoeraren diagnostikoa egitea Euskadiko Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektoreren erakundeetako arrisku psikosozialen eraginari dagokionez.



Lanaren antolaketaren ondorioz sortutako eta langilearen osasunean eragina izateko aukera handia duen gertakari edo egoera (estresa, indarkeria, laneko jazarpena edo mobbinga, kontratu-ziurgabetasuna, higadura profesionala eta abar)

1. Arrisku psikosozialen arloan ESHSeko erakundeen egungo egoerari buruzko DIAGNOSTIKOA egitea

- Zer puntutaraino da ohikoa arriskuen ebaluazioa sektorean? Zer ekintza ari dira garatzen prebentzio arloan? Zer erakunde ari da aurreratzen gehien bat gai hauetan?;
- Zein dira sektorean eragin handiena duten arrisku psikosozialak? Zer faktore lotzen da neurri handian arrisku horien eraginarekin? Zein dira ESHS eta arlo horretako beste sektore batzuen arteko alde nagusiak? Zein dira arlo horretan sektoreko erakundeen kezka nagusiak? ...

2. ESHSeko erakundeetan arrisku psikosozialen arloan BARNE EBALUAZIOKO ekimenak sustatzea

- Zergatik da garrantzitsua nire erakundeetan arrisku psikosozialak ebaluatzea? Zer tresna erabil ditzaket? Nola egingo dut?;
- Zer ezaugarri ditu nire erakundeak? Zein dira eragin handieneko arrisku psikosozialak? Zer aldagai dira gehien eragiten dutenak? ;Alderik ba al dago nire erakundeetan gertatzen denaren eta sektorean orokorrean gertatzen denaren artean? ...


3. Arrisku psikosozialen prebentzio arloan ESHSeko erakundeen arteko esperientzia eta jardunbide egokien TRUKAKETARAKO espazioak ahalbidetzea

- Zer esperientzia edo jardunbide egoki jarri dituzte martxan erakundeek? Nola egin dute? Zer oztopo izan dituzte prozesuan? Nola gainditu dituzte oztopo horiek?;
- Zer ikas dezakete beste erakunde batzuek kezkei erantzuna emateko? ...

Zer da garrantzitsua honelako proiektu batean?

Edozein erakunderen
testuinguruan...

1. **Arrisku psikosozialek eragin kaltegarriak dituzte** zenbait planotan
2. **Laneko Arriskuen Prebentzioari 31/1995 Legeak (LAPL)** erakunde guztiak behartzen ditu arrisku psikosozialen ebaluazioa eta prebentzioaren plangintza egin dezaten (kalte egin dezaketen laneko alderdi eta, beraz, prebentzioa izan dezaketen alderdi gisa hartzen ditu *lanaren ezaugarri guztiak, antolaketa eta ordenari dagozkionak barne*).



Zer da garrantzitsua honelako proiektu batean?

Gainera, **Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektoreko** erakunde batean...

3. Arrisku psikosozialen prebentzioa sozialki defendatzen diren balioekin eta sektoreko nortasunarekin **koherentzia** izateko ariketa da.

Arrisku psikosozialak zaintzeak lan-eskubideak babestea dakar...

4. Pentsatzekoa da arrisku horiekiko sektore honetako langileen gehiegizko esposizioa dagoela; erabiltzaileekin zuzeneko **esku-hartzea** izateak berekin dakarrelako eskakizun psikologiko eta emozioen erregulazio maila handia.

Arrisku psikosozialak zaintzeak eragin positiboa du erakundeko pertsonen ongizatean

5. Sektore honetako langileek lan egiten duten erakundearekiko jarrera mailako **lotura** afektiboa izan ohi dute; hori inplikazio pertsonal handiarekin lotuta dago, erakundearen onurarako eta erabiltzaileen onurarako gehiegizko esfortzua egiteko predisposizioa eta abar.

Arrisku psikosozialak zaintzeak ordaindutako soldatapeko langileen eta erakundearen arteko lotura mantentzea errazten du

6. Arrisku horrekiko kezka erakundearen **intereseko talde ugari** partekatzen dute: administrazio publikoa, sindikatuak; erabiltzaileak eta haien familiak...

Arrisku psikosozialak zaintzeak eragin positiboa du norberaren esku-hartzearen kalitatean

7. Ez dago **datu** zehatzik sektoreko arrisku psikosozialei dagokienez.

Arrisku psikosozialei buruz gehiago jakiteak haiek zaintzeko ekintzak sustatzea errazten du

Nor interesatzen zaigu aztertzea?

Gizarte zibileko ekintza pribatuak, formalizatuak, aktibo daudenak, autonomoak, irabazi-asmorik gabekoak, borondatezko ekintzakoak, egoitza eta jarduera Euskadin dutenak... **horien helburua gizarteratzea sustatzea denean eta ahultasun- edo bazterketa-, babesgabezia-, ezintasun- eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu efektiboan betearazten dituztenean, esku-hartze sozialeko jardueren bidez.**

← **Hirugarren Sektore Soziala** oso heterogeneoa da eta askotariko errealitateak biltzen ditu. Lan honetan, jardueraren hedapen handiagoa eta soldatapeko langileen bolumen eta egitura handiagoa duten sektore honetako erakundeen errealitatean sakondu nahi dugu.

Azterketa honetan, helburu Euskadiko Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektoreko erakundeak hartuko ditugu, gizarte-zerbitzuen arloan esku-hartze sozialeko jarduerak garatzen dituztenak eta enplegurako sarbidea sustatzen dutenak eta gaur egun jarduera garatzeko zati batean behintzat soldatapeko langileak dituzten erakundeak.


→ Sektoreko erakundeen % 9k 2013an milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontua izan zuen, aldiz, % 32k ez zuen 12.000 € baino gehiago izan.

→ Erakundeen % 54k soilik ditu soldatapeko langileak jarduera garatzeko, gainerakoak boluntarioekin soilik osatuta daude.

→ Gizarte Zerbitzuen arloko edo azpisektoreko erakundeen % 88k soldatapeko langileak ditu eta gutxi gorabehera hiritik batek (% 35) lortu du soldatapeko langileak ugaritzea azken hiru urteotan. Jarraian Enpleguaren azpisektorea dago; bertan, % 75ek ditu soldatapeko langileak, eta % 26k enplegua sortu du azken hiru urteotan.



Zein da azterketa lantzeko planteamendu metodologikoa?



Sektoreko erakundeetako arrisku psikosozialen eta jardunbide egoki posibleen ebaluazio-estrategien txertatze mailari buruzko datuak biltzea:

ERAKUNDEARENTZAKO GALDETEGIA

Sektoreko erakunde eta postu ugarian arrisku psikosozialen eraginari buruzko datuak jasotzea:

SOLDATAPEKO LANGILEENTZAKO GALDETEGIA



Diagnostikoa osatzeko eta aldagai, faktore eta abarren arteko lotura posibleak interpretatzeko informazio kualitatiboa biltzea. Eta erakundeetako kezka nagusiekin lotutako gogoetak partekatzea: **EZTABAIDA TALDEAK.**



Beste erakunde batzuetarako pista izan daitezkeen arrisku psikosozialen arloko jardunbide egokiak biltzea: **JARDUNBIDE EGOKIAK.**

Esperientziak trukatzeta eta ikaskuntza kolektiboak ateratzea praktikaren bidez, arlo horretako egungo kezkei erantzuna edo irtenbidea emateko: **MINTEGIA.**


2. HELBURUA:
“Ebaluazioa
erakunde
bakoitzean”

1. HELBURUA:
sektorearen
diagnostikoa

3. HELBURUA:
aurrera egiteko
ideiak

Zer puntutan lotzen da azterketa hau erakunde bakoitzeko Arriskuen Ebaluazioarekin?

Prebentzio Zerbitzuaren arduraduna (prebentzio-antolaketaren modalitatearen arabera: kanpoko prebentzio-zerbitzua, erakunde barruko prebentzio-zerbitzua edo erakunde arteko prebentzio-zerbitzua)



Arrisku psikosozialen ebaluazio-txostena

Arrisku psikosozialen ebaluazio-testa / galdetegia aplikatu. Hirugarren Sektoreko Behatokiak emango dio **plantillari** informazioa eskuratzeko edo lehendik dagoen informazioa eguneratzeko eta aberasteko

ERAKUNDEKO ARRISKU PSIKOSOZIALEI BURUZKO DATU ESTATISTIKOEN BANAKAKO TXOSTENA

Erakundeak EZ BADU APLIKATU arrisku psikosozialeko testik aurretik edo aurten BERRIZ APLIKATU nahi badu

B AUKERA:

Erakundeak DAGOENKO APLIKATU BADU arrisku psikosozialeko testa noizbait eta aurten berriz aplikatu nahi ez badu

Ez dio plantillari galdetegia aplikatuko eta aurreko kontsultetako datuak OTSri bidaliko dizkio sektoreko diagnostiko orokorrean sartzeko

Sartzeko

Erakunde bakoitzak azterketan nola parte hartuko du?

1. galdetegia: erakundea

Informazio hau jasoko da:

Erakundearen ezaugarriak (neurria, kolektiboak, antzintasuna...); Ebaluazio mota (aldizkakotasuna...); Kezka nagusiak; Jardunbide positiboak eta abar.

Erakundearen **Laneko Arriskuen Prebentziorako arduradunak** erantzun du

OTSk galdetegia¹ emailaz bidaliko du eta **online** beteko du

ONLINEKO FORMATUA: datuak biltzea eta grabatzea errazten du.

JARRAIPENA: Prozesuan sor daitezkeen zalantzak edo berezitasunak erantzungo ditugu.

2. galdetegia: soldatapeko langileak

Informazio hau jasoko da:

Erakundearen identifikazioa; soldatapeko langileen profil soziodemografikoa; Postu mota; **Arrisku Psikosozialen ebaluazio-testa***

Parte hartu nahi duten soldatapeko langileek erantzun dute

OTSk LAP arduradunari bidaliko dio galdetegia² ikusteko esteka eta hark langileei emailaz bidaliko die, online bete ahal izan dezaten

B AUKERA: LAPeko arduradunak OTSri aurreko kontsultetan erakundeak jasotako arrisku psikosoziaren arriskuaren datuak emango dizkio

EGOKITUA: Informazio-bilketa erakunde bakoitzaren errealitatera egokituko da.

Eztabaida-taldea

Gutxi gorabehera 2 ordu eta erdiko iraupena izango du, materialak aldeztatik bidalita (diagnostikoaren lehen datuen zirriborroa). TH bakoitzeko talde bat

LAPLeko arduradunak eta erakundeak antolatuta duen Prebentzio Zerbitzuko zati diren beste pertsona batzuek parte har dezakete.

Mintegia

Gutxi gorabehera 4 orduko iraupena. Aldeztatik bidaliko da eta data egokiena adostuko da parte-hartzaile kopuru handiena lortzeko.

Lotutako esperientzia positiboak baldin badituzte, aldeztatik haien berri eman ahal izango dute.

LAPLeko arduradunak eta erakundeak antolatuta duen Prebentzio Zerbitzuko zati diren beste pertsona batzuek parte har dezakete.

Landa-lanarekin lotutako beste gai garrantzitsu batzuk:



Emaitzak **ERABAT ANONIMOAK** dira, erakunde bakoitzaren emaitzen txostenean ez da egongo inkesta egindako pertsona erantzunekin lotzeko daturik, eta sektoreko emaitzen txostenean ere ez da egongo daturik parte hartutako erakunde bakoitzarekin emaitzak lotzeko.

*Galdetegian langileei lan egiten duten erakundearen izena emateko eskatzen zaie, **laginaren jarraipena** egin ahal izateko eta erakundearen bidez jakin ditzakegun datuei buruzko galderak eginez (erakundearen neurria eta abar) **galdetegia luzatzea saihesteko**.*



Erakundeko bakoitzeko **LAPLeko arduradunak** kasu bakoitzean Behatokiak emandako arrisku psikosozialen 2. galdetegiaren egokitasuna baloratuko du erakundearen errealitatearen arabera eta arriskuen ebaluaziorako erabilgarria izan daitekeen ala ez kontuan hartuta erabakiko du aplikatu ala ez.



Landa-lana amaitutakoan, ebaluazioaren 2. galdetegia aplikatutako erakunde parte-hartzaile guztiei erakundeko arrisku psikosozialei buruzko **DATU ESTATISTIKOEN BANAKAKO TXOSTENA** bidaliko zaie inolako kosturik gabe (erakundeko LAPeko arduradunak gerora bere ardurapeko arriskuen ebaluazio-txostenean sartu ahal izango ditu datu horiek).



Aurrez beste ebaluazio-tresna batzuk aplikatu dituzten eta aurten emandako 2. galdetegia aplikatzea aukeratu duten erakundeei, ahal den itemetan **emaitzak alderatu ahal izateko BATERATZE TAULAK** bidaliko zaizkie.



Aurten emandako 2. galdetegia ez aplikatzea erabaki duten erakundeek ere parte hartu ahal izango dute sektoreko diagnostikoan. Horretarako, Behatokiari **AURREZ BILDUTAKO DATUAK bidaliko dizkie, beste tresna batekin bildutakoak izanda ere** (bateratze-taulak erabiliko dira beste test batzuetako datuekin lan egiteko).

Zer ebaluazio tresna dugu buruan?

Tresna ugari berrikusten eta bakoitzaren egokitasuna baloratzen ari gara... Behatokiak ikerketa honetarako tresna gisa bat aukeratu ahal izateko.

ISTAS 21 (2. bertsioa)

CoPsoQ-istas21 metodoa Copenhagen Psychosocial Questionnaire-ren Espainiako Estatuaren egokitzapena da

Hiru bertsio ditu: laburra (25 langile baino gutxiagoko erakundeetarako, 30 itemekin), ertaina (25 langile baino gehiagokoetarako, 109 itemekin) eta luzeagoa ikerketarako.

FPSICO

Laneko Segurtasun eta Higienearen Institutu Nazionalaren (INSHT) proposamena

44 galdera (89 item) ditu 9 dimentsiotan bilduta

INSL

Laneko Osasunaren Nafarroako Institutuak (INSL) garatutako ebaluazio-metodoa da

30 item ditu 4 dimentsiotan bilduta

HIREKIN

Hirekin-ek egindako lanaren ondorioa da, dauden tresna nagusiak berrikusi eta ESHSen errealitatera egokituagoa dagoen testa lortu nahian.

100 item ditu, 20 dimentsiotan bilduta 1etik 4ra arteko eskalarekin

X¿?

- ✓ Aitortutako erakundeek balioztatutako testak eta erabilera zabalduena dutenak ISTAS21, FPSICO eta INSL dira, nahiz eta horietako bat ere ez dagoen sektorera zehazki egokituta.
- ✓ Denek partekatzen dituzte item batzuk, nahiz eta batetik bestera aldeak nabariak diren (luzeran, edukietan, neurketa-eskaletan...).
- ✓ Pentsa daiteke erakunde askok ez dutela arrisku psikosozialen test zehatzik aplikatu (planerako informazioa beste formula kualitatibo batzuen bidez jasotzen dute eta abar).

Zein da laneko plana eta kronograma?

2016ko apirila-
maiatza

Ekaina-uztaila
2016

Iraila-urria
2016

Iraila-abendua
2016

Abendua
2016

1. fasea: ikerketaren
diseinua

- **Bigarren mailako iturriak berrikustea**
- **Azterketa helburuaren mugaketa**
- **Proiektua erakundeetara aurkeztea eta haiekin alderatzea**
- **Ebaluazio-tresnak aukeratzea**

2. fasea: informazio-
bilketa

- Soldatapeko langileei onlineko galdetegia edo erakundeetan aldeztutako aurretik egindako kontsultetako datuak biltzea
- Erakundeetako laneko arriskuen arduradunei onlineko galdetegia egitea

3. fasea: informazioaren
azterketa

- Erakundearen banakako txostena
- Eztabaida taldeak 3 THetan: diagnostikoa kontrastatzea eta errotrak identifikatzea
- Sektorera txostena: Arrisku psikosozialen diagnostikoa ESHSn

4. fasea: esperientziak
trukatzeko

- Jardunbide egokiak identifikatzea arrisku psikosozialen arloan
- Mintegia: arrisku psikosozialen arloan errotrak batzuk gaitzetzeko ikaskuntza partekatua

5. fasea: emaitzen
transferentzia

- Amaierako jardunaldia
- Sare Sozialeko bidezko hedapena

ARRISKU PSIKOSOZIALAK EUSKADIKO EKINTZA SOZIALEKO HIRUGARREN SEKTOREAN

Informazio gehiago:

Irama Vidorreta/ Ainara Canto

investigacion@3sbizkaia.org

944403355/9444003377/944009999/

www.3sbizkaia.org

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia

